


EPAIMAHAIA

- Epaimahaia zientzia eta teknologiako zein literatura-munduko edo kazetaritzako adituek osatuko dute, eta Elhuyarrek izendatuko du.
- Epaimahaikoen erabakia 2010eko apirilaren 30a baino lehen emango da aditzera.
- Epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan saria emateko: dibulgazioaren kalitatea; lanaren erakargarritasuna; euskara-maila; irudi eta grafikoen kalitatea eta aberastasuna; eta lanaren originaltasuna.
- Epaimahaiak eman gabe utz ditzake sariak, aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate-ezaugarriak betetzen ez dituztela iritziz gero.

BESTELAKOAK

- Lanen jabetza egile(ar)ena izango da.
- Elhuyarrek bere gain hartzen du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Argitalpen-eskubidea urtebetekoa izango da; argitalpenek ez dute egile-eskubiderik izango, dibulgazio-artikuluaren kasuan.
- Saritutako lanak gizarteratzean, nahitaez egin behar da irabazitako sariaren edo bekaren aipamena.
- Aurkeztutako lanak ez dira itzuliko.
- Elhuyarko langileek ezingo dute parte hartu sariketa honetan.
- Sariketari buruzko argibideak Elhuyarri eska dakizkiok (943 363040 / cafelhuyarsariak@elhuyar.com).
- Bestelako ezustekorik sortzen bada, Elhuyarrek ebatziko du.
- Sariketa honetara aurkezteak esan nahi du oinarri hauek guztiak onartzen direla.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak "SARI PARTE-HARTZAILEAK" fitxategian sartuta daudela aitortzen dugu. Horren helburua da elkarlana sustatzea, ikerketen eta zientzia-dibulgazioaren berri ematea eta euskararen normalizazioa bultzatzea. Datu horiek mailing-ak egiteko erpresek, epaimahaikideek eta/edo babesleek erabili ahal izango dituzte. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian erregistratu dugu, eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu. Fitxategi horien erantzulea ELHUYAR FUNDAZIOA bera da, eta, nahi izanez gero, alpatutako Legean aurreikusitako sarbide-, zuzenketa-, ezeztapen- eta aurkaritza-eskubideak baliu ditzakezu; horretarako, eskaera bat bidali behar duzu datuensegurtasuna@elhuyar.com helbidera.



ELHUYAR
Fundazioa



ZIENTZIA



NEURRI - NEURRIRA

CAF
ELHUYAR 
sariak 09

SARIKETAREN XEDEA

Elhuyar sariaren helburuak dira zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa, kazetaritza, eta narrazio-lanak bultzatzea, saritzea eta aitortzea.

Elhuyar Fundazioak antolatzen ditu CAF-Elhuyar sariak, CAF enpresaren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren diru-laguntzaz.

KATEGORIAK ETA SARIAK

Hiru kategorია hauek osatzen dute sariketa:

Dibulgazio-artikulu originalak. Kategoría honetan, euskaraz idatzitako zientzia eta teknologiaren dibulgazio-lanak aurkeztuko dira. Bi azpikategoriatan banatuta dago:

Dibulgazio-artikulu orokorrak

Saria: 2.000 euro

Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak

Saria: 2.000 euro

Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak. Kategoría honetan, euskaraz idatzitako eta gazteei zuzendutako literatura-lanak aurkeztu ahal dira. Lan horietan, zientzia- edo teknologia-gaiak presentzia izan beharko dute, zeharka bada ere. Zientzia-narrazioen bitartez, gazteei zientzia eta teknologia modu atsegín eta erakargarrian hurbiltzea izango da helburua.

Saria: 5.000 euro

Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak. Kategoría honetan, 2009an euskaraz argitaratutako kazetaritza-lanak aurkeztuko dira, edozein formatu eta generotakoak.

Saria: 2.000 euro

DIBULGAZIO-ARTIKULUAK

- Kategoría honetara euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikuluak aurkeztuko dira.
- Aurkeztuko diren lanek originalak eta sekula argitaratu gabeak izan behar dute; itzulpen edo moldaketarik ez da onartuko. Beste sariren bat jaso duten lanak ere ez dira onetsiko.
- Elhuyarrek ez du erantzukizunik bere gain hartuko egileek aurreko araua betetzen ez badute, eta, gainera, dirua itzultzeko eska lezake, emanda balego.
- Bi eratako dibulgazio-artikuluak aurkeztu ahal izango dira: zientzia- eta teknologia-gai bati buruzko dibulgazio-artikulu orokorrak, batetik, eta egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak, bestetik.
- Doktore-tesietan oinarritutako artikuluen kategorian, 2009ko urtarrilarena 1etik abenduaren 31ra bitartean aurkeztutako tesiak bakarrik hartuko dira kontuan.
- Artikuluek gehienez 10.000 karaktere izango dute, hutsuneak zenbatuta. Muga horretatik kanpo daudenak ez dira kontuan hartuko. Dagozkien irudi eta grafikoez hornituko dira (jabetza ezagunekoak eta argitaratzeko baimena eta kalitatea dutenak), eta horiei dagozkien espazioa ez da erabiliko lanen luzera neurtzeko. Bibliografia ere aipatu egin behar da.
- Egile bakar batek edo egile-talde batek idatzitako artikuluak aurkeztu ahal izango dira.
- Saria jaso duten artikuluak *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariarekin batera banatuko den dossier berezi batean argitaratuko dira.
- Saririk jaso ez duten artikuluak Elhuyarren komunikabideetan argitaratu ahal izango dira, horretarako egokiak direla ikusiz gero.

GAZTEEI ZUZENDUTAKO ZIENTZIA-NARRAZIOAK

- Kategoría honetara narratibako lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, haien zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabe dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.
- Proiektuak atal hauek izango ditu:
 - Gauzatu nahi den proiektuaren aurkezpena, 2-4 orrialdekoa, horren inguruko ezaugarriak zehaztuz: argumentua, egitura, luzera, estiloa, eta abar.
 - Idazlanaren lagina, 15-20 orrialdekoa, ez nahitaez liburuaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.
 - Liburuak gutxienez 165.000 karaktere (75 DIN A4) izango ditu.
- Bekaren herena saria izendatzean jasoko du irabazleak, beste herena sei hilabetera eta azken zatia lana entregatutakoan.
- Irabazleak izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du, gehienez, liburuaren emaitza Elhuyar Fundazioaren egoitzara bueltatzeko.
- Idazleak bere lana entregatuko ez balu, edo idazlan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoaren aldean nabarmen kaskarragoak balira, idazleak itzuli egin beharko du jasotako dirua.

KAZETARITZA-LANAK

- Kategoría honetan, zientzia-eta teknologia-gaiak hizpide dituzten euskarazko kazetaritza-lanak aurkeztuko dira.
- Formatu eta genero guztietako lanak aurkeztu ahal izango dira: egunkarietan argitaratutako erreportajeak, telebistan emititutakoak, Interneten argitaratutako lanak, irati-emankizunak...
- Lanek 2009ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean argitaratutakoak izan behar dute.
- Lanak autoreak nahiz komunikabideak aurkez ditzake. Alabaina, saria autorearentzat izango da kasu guztietan.
- Ezingo dira proiektu osoak aurkeztu, kazetaritza-lan zehatzak baizik.

LANAK AURKEZTEA

- Lanak 2010eko urtarrilaren 31 baino lehen bidali behar dira.
- Lanak Elhuyar Fundazioaren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3, Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora bidali behar dira.
- Lanaren kopia digitala eta egile(ar)en datuak dituen dokumentua aurkeztu behar dira. Honako datu hauek jaso behar ditu dokumentuak: egile(ar)en izen-deiturak, helbidea, herria, posta-kodea, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Autorearen doktore-tesian oinarritutako lanetan, aurrekoaz gain, beste datu hauek adierazi behar dira gutun-azalaren barruan: zein sailetan eta unibertsitatetan egin den tesia. Horrekin batera, doktore-titulua edo tesia gainditu izanaren frogagiriaren kopia bidali behar dira lehen adierazitako helbidera.
- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanen kategorian, hirugarren puntuko datuez gain, argitalpenaren kopia bat bidali behar da prentsa idatzian argitaratutako lanen kasuan, eta irati, edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagozkien enpresak emandako emisio-ziurtagiria. Interneten argitaratutako lanen kasuan, webgunearen helbidea adierazi beharko da, eta kudeatzaileak emandako argitalpen-ziurtagiria bidali beharko da.